

Durkheimen teoriak eta Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako*

Mikel HERNANDEZ ABAITUA

Gauza jakina denez, *Egunero hasten delako* eleberriaren espazioetako bat Durkheimeko tren geltokia da, eta autoreak leku hori soziologo famatu baten izenarekin bataiatu izana ez da kasualitatea, Ramon Saizarbitoriaren eleberrietan ia dena baitago oso kalkulata, eta sinbolismoz beterik anitzetan. Saizarbitoriak bere lehen eleberria idatzi zuen garaian (1968an) Emile Durkheim, soziologiaren fundatzaileetako bat, ez zegoen oso ondo ikusita¹. Arrazoi asko zeuden horretarako. Durkheim antimarxista zen, ez zuen iraultzan sinesten (ezin zuen jasan indarkeria), erreformista zen (inuzentekeria iruditzen zitzaion gizarte egitura batzuk zeharo suntsitu ondoren erabat berriak izango ziren beste batzuk haien ordeztar jar zitezkeela pentsatzea). Durkheimen ustez sozialismoa ez zen nahikoa gizartearen konplexutasuna ulertzeko (hala ere, honek ez du esan nahi Durkheim eta bere jarraitzaileak atzerakoiak zirenik, bera ez baina bere hainbat jarraitzaile alderdi sozialistakoak baitziren²). Baina horrek ezin digu pentsarazi errealitatea aldatzea interesatzen ez zitzaion ikertzaile bat zenik. Aitzitik, bere ustez soziologiak positibismoaren ildotik ibili behar bazuen zientzia serio bat izateko, hori ez zen maila teorikoan bakarrik gelditzekeo:

“Por el hecho de que nos propongamos estudiar ante todo la realidad, no se deduce que renunciemos a mejorarla: estimaría-

(1) Adore apur bat ere behar zen garai hartan progreen artean Durkheim errebin-dikatzekeo, ezkutuka bazen ere.

(2) Ikus H. Bourgin (1942: 11).

mos que nuestras investigaciones no merecerían la pena si no hubieran de tener más que un interés especulativo". (1995: 41)

Durkheimen ideia asko ez ziren batere ondo ezkontzen XX. mendeko hirurogeietako hamarkadako giroarekin. Baina marxismoak eta iraultzak lehengo garrantzia galdu duten oraingo garai honetan Durkheimek beste dimentsio bat hartu du. Jokin Apalategik idatzi bezala, "1858an Frantziako Épinal hirian judutar gurasoetatik sortu zen haur hark, giza eta gizarte-jakintzetan egindako bideak, 2000 urtearen bezperetan eragina eta garrantzia duela ezbairik gabeko da" (1993: 9-10).

Durkheimen ustez sozialismoa ezin zen zientifikoa izan, baina bai soziologia, eta honek gizartearen erreformatzeko eta hobetzeko behar ziren bitartekoak eman behar zituen. Beraz, soziologia sortzeak, berarentzat, helburu politiko bat zuen, zentzu zabalean.

Durkheim III. Errepublikara garaiako Frantzia bizi izan zen eta hau oso garrantzi handikoa da soziologo honen nondik norakoa ulertzeko. Orduko errepublikar progresisten helburua estatu laiko bat eraikitzea zen, bidezkoa, egituratua, gizabanakoaren zorientasuna helburutzat izango zuena (gaur arte iraun duen egitasmoa). Errepublikar haientzat klerikalismoa zen etsaia. Eskuindar izatea katoliko eta errepublikaren aurkakoa izatea zen; ezkertiarra, ordea, errepublikarra eta antiklerikala. 1789ko iraultzaren ideiategia gaurkotzea zen helburua. Horretarako nahitaezkoa zen kode etiko errepublikar bat eraikitzea, eta lan horretan hezkuntzak berebiziko garrantzia izan behar zuen: "el fin de la educación es crear el ser social" (1977: 33). Durkheimentzat hezkuntza gauza soziala da argi eta garbi (2002: 26), hain zuzen ere, "la vida escolar no es sino el germen de la vida social" (2002: 35). Hezkuntzak gizaki berri bat sortu behar du, gizaki soziala (2002: 32). Hezkuntza horrek laikoia izan behar zuen. Laikotasuna ezartzeak esan nahi du erlijioak utzitako hutsune moralak beste moral batek bete behar duela³:

"Si, para racionalizar la moral y la educación moral, nos limitamos a retirar de la disciplina moral todo lo que sea religioso, sin reemplazar nada, nos exponemos, de manera casi inevitable, a retirar al mismo tiempo elementos propiamente morales, y, por

(3) Horren harira hauxe esaten du eleberriko berritsuak: "Horixe da gertatzen... Moral katolikoa dagoela krisisean nahi zuen esan apaiz harek..." (25).

tanto, bajo el nombre de moral racional, no tendríamos más que una moral empobrecida y desvaída." (2002: 41)

Beraz, zeharo laikoa izango da moral hori, jainkorik gabekoa, baina progresoaren eta zientziaren aldekoa, eta,aldi berean, moral zientifiko bat ia: "este libro es, ante todo, un esfuerzo para tratar los hechos de la vida moral con arreglo a los métodos de las ciencias positivas" (1995: 39) idatzi zuen bere doktorego tesian. Honek ez du esan nahi morala zientziatik atera behar denik: "no queremos extraer la moral de la ciencia, sino construir la ciencia de la moral" (1995: 39). Esan bezala, moral bat ezabatzea ez da nahikoa izango, hortaz, moral bat beste moral batez ordezkatu behar da, eta moralaren zientzia hori lortzeko "hay que descubrir las fuerzas morales que, hasta el presente, los hombres sólo han aprendido a representarse en forma de alegorías religiosas" (2002: 43); bestela esanda: "hace falta descubrir los sustitutos racionales de esas ideas religiosas que durante tanto tiempo han servido de vehículo de las ideas morales más esenciales" (2002: 42).

Guzti honetarako hezkuntza oso inportantea baldin bada, hezkuntza hori ordezkaten duten irakasleak izango dira estatuak beharko dituen langile premiazkoak, xedeak lortuko badira. Eta horrela izendatu zuten Durkheim gaztea Pedagogiako irakasle Bordeleko unibertsitatean esperientzia gutxi eta ia obrarik ez zuen denboran. Garai hartan egin ziren horrelako izendapenak Estatuaren apustu politiko bat izan ziren hezkuntza laiko baten berrikuntzarako. Une hartan Durkheimek bere kurrikulumean zituen meritu bakarrak bere Filosofiako titulazioa, artikulu batzuk eta bigarren hezkuntzako irakasle esperientzia ziren. Izendapen horrengatik, eta Soziologia zientzia gisa existitzen ez zenez, Durkheimek urte askotan zehar nozitu behar izan zuen zientzia berriaren irakaspena Pedagogiaren alorrean sartu behar izatea, bere lana nolabait justifikatzearen. Bi zientziek errepublikaren zerbitzura egon behar zuten, gizarte bidezkoago eta egituratuago bat lortzeko, gizarte zoriotsuago bat, zeren "el deseo de llegar a ser más feliz es el único móvil individual que ha hecho posible el progreso" (1995: 292). Durkheim zeharo ados egongo da zeregin horrekin. Eta zoriontasuna oztopatzen duten faktoreak ikertzeko oso garrantzi handia duen kontzeptu bat dago Durkheimentzat: *anomia*. Arrazoi askorengatik gizartean egon daitekeen egoera desorekatua, desegituratua, desordenatua, legeek eta arauak

errealitate sozialarekiko jasaten duten desfaseagatik sortutakoa deskribatu nahi izan zuen hitz honen bidez; adibidez, bizitza ekonomikoaren egoera bera Durkheim bizi izan zen garaian. "Varias veces insistimos en el curso de este libro sobre el estado de falta de regulación (anomia) jurídica y moral en que se encuentra actualmente la vida económica" (1995: 2) idatzi zuen bere doktorego tesian kapitalismoaren gehiegikeriez. Anomiak zorientasunik ezera darama, injustiziarra eta ezerezera: "si la anomia es un mal, lo es, ante todo, porque la sociedad la sufre" (1995: 6). Kapitalismoak egoera horretara eramandu gizartea moralik gabeko eginkizun bidegabe baten bitartez: "así, la ausencia de toda disciplina económica no puede dejar de extender sus efectos más allá del mundo económico mismo y de llevar tras de sí un descenso de la moralidad pública" (1995: 5). Soziologia izango da gizarte industrializatu laiko baten gaixotasunak diagnostikatu eta sendatuko dituen zientzia. Eta Estatu izango da sendaketa hori gauzatuko duena: "el deber del estadista ya no consiste en impulsar violentamente a las sociedades hacia un ideal que le parece seductor, y su papel viene a ser el mismo del médico: previene la aparición de las enfermedades mediante una buena higiene, y cuando se han declarado procura curarlas" (1895: 93). Bai, zeren kapitalismoari mugarik jartzen ez bazaio, gizakiak esplotatzera jotzen baitu zuzenean, moralik gabeko gizarte batean, baina "la única personalidad moral que se encuentra por encima de las personalidades particulares, es la que forma la colectividad" (1995: 6). Beraz, justizia bilatuko duen estatu indartsu bat eraiki behar da, laikoa, baina kode etiko berri batekin hornitua, gizartea anomiatik salbatzeko etengabe, hiritarrentzat justizia lortzeko, zeren "plus l'État est fort, plus l'individu est respecté" (1997: 93), eta hau egia izan dadin "la fonction essentielle de l'État est de libérer les personnalités individuelles" (1997: 98). Hain zuzen ere gizabanakotasun morala ez da Estatuaren aurkakoa, baldin eta hau bidezkoa bada, noski:

On peut mieux comprendre qu'il n'y avait rien d'exagéré à dire que notre individualité morale, loin d'être antagoniste de l'État, en était au contraire un produit. C'est lui qui l'a libéré. Et cette libération progressive ne consiste pas simplement à tenir à distance des individus les forces contraires qui tendent à l'absorber, mais à aménager le milieu dans lequel se meut l'individu pour qu'il puisse s'y développer librement. Le rôle de l'État n'a rien de

négatif. Il tend à assurer l'individuation la plus complète que permette l'état social. » (1997: 103)

Estatuak bermatu behar ditu gizabanakoaren eskubideak, eta hauek beti ari dira zabaltzen, ez da une puntual batean lor daitekeen helburu bat. Hori lortzeko Estatuak moral berri horretan hezi behar ditu hiritarrak hezkuntza laiko berri baten bidez, ezen "par cela même se trouve déterminé le devoir fondamental de l'État qui est d'appeler progressivement l'individu à l'existence morale" (1997: 104), eta hiritarrek beren borondatez onartu beharko dute moral hori⁴, ez da inposatua izango, hiritarrak haren ontasunaz berez konbentzitu behar dira: "la moralidad no consiste ya simplemente en cumplir, incluso de forma intencionada, determinados actos; hace falta que la regla que prescribe esos actos sea libremente querida, es decir, libremente aceptada" (2002: 110), eta horregatik moral hori izango da "una moral del deber", "una moral del bien", "una moral racional" eta "esencialmente idealista" (2002: 111). Esan bezala, hori guztia ezin da lortu gauzak inposatuz, hezkuntzak gauza horiek iradoki egin behar ditu, zeren "el carácter imperativo de la sugerencia constituye la fuente original de su eficacia" (2002: 124). Erijiro laiko bat bezalako izango litzateke: « il est tout aussi facile de s'unir pour travailler à la grandeur de l'homme que pour travailler à la gloire de Zeus ou de Jahéh ou Athénê. Toute la différence de cette religion par rapport aux individus, c'est que le Dieu qu'elle adore est plus proche de ses fidèles » (1997 : 104). Bestela esanda:

« Il y a une activité interne qui n'est pas économique ou mercantile, c'est l'activité morale. Ces forces qui se détournent du dehors vers le dedans ne sont pas simplement employées à produire le plus possible, à augmenter le bien-être, mais à organiser, moraliser la société, à maintenir cette organisation morale, à en régler le développement progressif. Il ne s'agit pas simplement de multiplier les échanges, mais de faire qu'ils s'effectuent d'après des règles plus justes ; il ne s'agit pas simplement de faire en sorte que chacun ait à sa disposition une riche alimentation, mais que chacun soit traité comme il le mérite, soit affranchi de toute dépendance injuste et humiliante, tienne aux autres et au groupe sans y perdre sa personnalité. Et l'agent spécialement

(4) Egoismoz edo gizabanakoari komeni zaiolako beste ezergatik ez bada ere: "¿Cómo es posible que, al mismo tiempo que se hace más autónomo, dependa el individuo más estrechamente de la sociedad?" (1995: 45).

charché de cette activité, c'est l'État. L'État n'est donc pas destiné à devenir ni, comme le veulent les économistes, un simple spectateur de la vie sociale dans le jeu de laquelle il n'interviendrait que négativement, ni, comme le veulent les socialistes, un simple rouage de la machine économique. C'est avant tout l'organe par excellence de la discipline morale. Il joue ce rôle aujourd'hui comme jadis, quoique la discipline ait changé. Erreur des socialistes. » (1997: 106)

Saizarbitoriaren eleberrari dagokionez esan dezakegu behin eta berriro agertzen dela bertan Durkheimen itzala eta errainua (hiri-izen bihurtuta agertzeaz gain), batez ere berritsuaren diskurtsoan. Hasteko, berritsua unibertsitateko irakaslea da, Durkheim bezala, ez Pedagogia edo Soziologiakoa, Historiakoa baizik. Historiak garrantzi handia zuen Durkheimentzat errealitatea ondo ezagutzeko eta hezkuntza on bat lortzeko, eta soziologiaren ahaide hurbiltzat hartzen zuen:

“La sociedad tiene su carácter propio, su constitución especial; es, pues, indispensable darla a conocer en sí misma, poner en contacto directo con ella al espíritu del niño. Es cierto que la ciencia de los hechos sociales, propiamente dicha, es aún demasiado rudimentaria para que pueda enseñarse en la escuela. Pero, entre las enseñanzas escolares, hay una pariente próxima de la sociología que puede dar al alumno una idea muy suficiente de lo que es la sociedad y sus relaciones con el individuo. Es la enseñanza de la historia.” (2002: 204).

Durkheimentzat hain inportantea zen moralak behin eta berriro aipatzen da Saizarbitoriaren eleberriguzti honetan zehar (24, 25, 80, 124, 131, 132, 136, 138, 161...), berau erlatibizatuz batzuetan. Moralaren aipatze hau berritsuaren bidez gertatzen da gehienetan, baina medikuek ere aipatzen dute, *Le Temps* aldizkariako artikulua, Jean Louisek berak... Zirkunstantziak oso garrantzitsuak dira moralari dagokionez, zirkunstantziak moldatu ohi baitute moralak: “gure amonak esate baterako aintikonzeptibuek ezagutu izan balituzte beste moral izanen zuten” (161); “zirkunstantzi bakoitzak moral bat eskatzen du?” (24); “zer esaten dizu zuri zirkunstantziako moralak?” (25). Zirkunstantzien kontua gai errekorrente bat da eleberriguztian, eta moralak eta edukazioarekin gertatzen den bezala, isotopia sententziaz erantzuten du. Durkheimentzat Estatuak zirkunstantzien araberako jokatu behar zuen gizabanakoa babesteko, zirkunstantziak eten-

(5) Ikus 14, 21, 24, 25, 26, 120, 135...

gabe aldatzen ari direlako, eta horrexegatik arau eta lege berriak atera behar dira, arau hustasuna gerta ez dadin, anomiarik sor ez dadin. Saizarbitoriaren eleberririk hiritarrak (batez ere emakumeak) behar dituen abortuari buruzko arau eta lege egokien hutsunea salatzen du.

Heziketa da eleberrian zehar agertzen den beste gai errekurren- te bat (adibidez 15, 16 eta 17. orrialdeetan 9 aldiz errepikatzen da "edukazio" hitza), eta ikusi denez, Durkheimentzat ere, berritsuarentzat bezala, oso garrantzitsua zen.

"Edukazioa" eta "moral", bai, hain zuzen ere horixe da Durkheimen liburu baten izenburua: *L'éducation morale* (1923). Liburu horretantxe edukazioa gauzatzeko haurrek behar duten diziplinaz hitz egiten denean zigor fisikoen kontra agertzen da Durkheim, argi eta garbi, behin eta berriro: "en primer lugar, nos va a permitir justificar sin dificultad el precepto que constituye la base de nuestro sistema de castigos escolares: la prohibición absoluta de los castigos corporales" (2002: 147). Berritsua ere iritzi berekoa da, nahiz eta modu informalagoan hitz egiten duen beti bezala: "Ni hunkitu egiten naute; haur bat jotzen ikustea eta, neska gazte bat maleta batekin, bakarrik, trenari itxoitzen, gehien tristatu nauten bi gauzak direla uste dut". Hezkuntza okerra alde batetik eta neskaren sufrimendua gizartearen anomia egoeragatik abortatze legedi baten faltaren erruz beste alde- tik.

Bai, asko dira berritsuak eta Durkheimek (eta autore implizituak? Eta autore enpirikoak?) elkarren artean dituzten gauzak. Adibidez, berritsua oso solidarioa da, berehala errukitzen da sufritzen dute- nekin (abortatzera doazen neskatoekin, jipoitutako haurrekin, baka- rrik daudenekin...⁶). Durkheimentzat solidaritatea gizartean oso ga- rrantzitsua zen: "la solidaridad social es un fenómeno completa- mente moral" (1995: 75); "la característica de las reglas morales es la de enunciar las condiciones fundamentales de la solidaridad social" (1995: 467).

Baina bateratasun horiek baino garrantzitsuagoa da Durkheimen pentsaera bera eleberriri honi dagokionez. Gure ustez autore implizi- tuak sendoki pentsatzen du Durkheimen ideiek oso ondo errepikatzen

(6) Hona hemen beste gai errekurrente bat: 15, 25, 26 (9 aldiz), 27, 98...

dutela abortuaren gaia eta bere soluzioa. Soziologo frantsesaren ideien arabera, abortuaren auzia gertakizun sozial bat izango litzateke. Hauxe de Durkheimek gertakizun sozialerako eman zuen definizioa:

“Llamamos hecho social a todo modo de hacer, fijo o no, que puede ejercer sobre el individuo una imposición exterior; o también, que es general en la extensión de una sociedad dada, al mismo tiempo que posee existencia propia, independiente de sus manifestaciones individuales.” (1977: 39)

Abortuaren gaia “gertakizun sozial” bat da. Erljiioek inmoralizatzen jo ohi dute⁷ gertakizun sozial hau (erlijio katolikoak besteak beste; ez ahaztu Gisèle katolikoa dela) eta estatu askorentzat delitu gisa dago tipifikatuta. Estatu konfesionalak (eta akonfesional batzuek ere bai) horrelakotzat jo ohi dute (zuten). Ordea, moral laikoaren aldeko estatu akonfesional batek zilegitzat har dezake abortatzeko eskubidea (hartu behar luke hiritarren zorientasunaren xerkan). Gaur egun abortuaren praktika legala nahiko hedatuta dago Europako gizarte modernoan baina eleberri hau argitaratu zenean ez zegoen horri aurre egingo zion legerik estatu gehientan:

“Todos los países de Europa occidental, salvo los nórdicos y Gran Bretaña, tenían leyes de aborto restrictivas hasta el 1 de enero de 1975, en que entró en vigor una revisión del Código Penal austríaco, aprobada en el año anterior, que permitía el aborto a petición durante el primer trimestre. Unos días después Francia autorizaba, por un período de cinco años, el aborto a petición durante las primeras diez semanas de embarazo.” (TIETZEN, C., 1983: 32)

Durkheimen terminologia erabiltzearen, abortuaren arazoa sexuaren inguruan gizarte modernoan dagoen anomia egoeraren manifestazio bat da (tabu izateagatik eta abar). Estatuak legeak sor ditzake sexu heziketa egoki bat lortzeko (ikastetxeetan sexologia irakaski gaia sartuz adibidez; berrietsuaren ustez hezkuntzak irakats ditzakeen gauza praktikoetako bat izango litzateke) abortatzeko beharra des-

(7) Hona hemen, adibidez, Paulus VI.ak bere *Humanae Vitae* entziklika famatuan (eleberri honetan aipatzen dena, 107) idatzitakoa: “hay que excluir absolutamente, como vía lícita para la regulación de los nacimientos, la interrupción directa del proceso generador ya iniciado, y sobre todo el aborto directamente querido y procurado, aunque sea por razones terapéuticas” (1968: 20-21).

gerrarazteko, edo abortatu behar denean baldintza duinetan egiteko, horrela ekidin egingo lirateke urtero gertatzen diren heriotzak (asko Europan, liburu hau argitaratu zenean, gaur egun baino askoz gehiago). Erljioak abortatzea moralaren kontrakoa dela esaten badu, soziologiak zientifikoki ikertu behar du zeintzuk diren gizartearen ajeak eta beharrak, orduan moral "zientifiko" bat izango genuke eta ez sineskeria irrazional multzo bat erlijio batetik aterata. Horren arabera, Estatuak lege berriak egin behar ditu gizartean sortzen diren behar berrietarako (abortatzeko legea adibidez), Durkheimek idatzi bezala, hiritarren zoriontasuna lortzeko lana ez baita puntuala, ez da inoiz lortzen, etengabe aritu behar da lanean behin eta berriro sortzen diren hutsuneak betetzeko:

« Les droits individuels sont donc en évolution ; ils progressent sans cesse, et il n'est pas possible de leur assigner un terme qu'ils ne doivent pas franchir. Ce qui hier ne paraissait être qu'une sorte de luxe, deviendra demain droit strict. La tâche qui incombe ainsi à l'État est donc illimitée. Il ne s'agit pas simplement pour lui de réaliser un idéal défini, qui devra être, un jour ou l'autre, atteint et définitivement. Mais la carrière ouverte ainsi à son activité morale est infinie. » (1997: 103)⁸

Arazoaren aurrean begiak ixtea da ezin egin daitekeena, liburua-
ren bukaeran berritsuak dioen bezala, eta liburuan aipatzen den *Le Temps* aldizkarian esaten den legez arazoari aurre egin behar zaio (135). Zeren neskak ez baitira hiltzen baldintza txarretan abortatzea-
gatik bakarrik, beren buruaz beste ere egin dezakete egoera larria-
gatik:

"Haurdun dagoen neska, bakarrik laguntzarik gabe, gizartetik, bere mediotik espulsatua, dirurik gabe, edozer gauza egiteko prest dago. Bere medioak barkatuko ez dion "falta" bat egiteaga-
tik "krimen" bat egitera bultzatzen zaio, izan diteke jaboia eta petroloia, izan diteke horratz bat, izan diteke bere burua hiltzea. Haurrik desiratzen ez duten neska gazteak non bukatzen duten guziok dakigu, Assistance publique-n besoetan "Seine-ko ibaian bukatzen ez badute behintzat" (...)." (136-137)

(8) Ez dugu uste lekuz kanpo dagoenik esatea Saizarbitoria soziologoaren lana, bere bizitza ia guztian zehar, Durkheimen teoriak praktikara eramatea izan dela, hau da, ongi-izate estatua zabaltzea. Orobat bere bizitza politko laburrari dagokionez.

Suizidioaren gaia behin baino gehiagotan agertzen da eleberri honetan (14, 52...), eta Durkheimen liburu garrantzitsuenetako baten gaia da (*Le suicide*, 1897)⁹. Anomiapen baldin badago gertakizun sozial hau, orduan "falta de regulación jurídica y moral" bat (1995: 2) izango genuke. Beraz, estatu laiko batek egoera anomiko hori desegin behar luke lege berrien bidez, eta moral laiko berri baten bidez hori posible izango litzateke. Estatuak hori egiteko obligazioa du bere hiritarren askatasuna eta zorientasuna erdiesteko (Gisèlek askea eta zorientasua izan nahi du lehen bezala¹⁰). *Le Temps* aldizkariko artikuluan agertzen den tesia eleberriaren tesia dela esan daiteke, sintetizatuta eta ongi azalduta, eta bat dator Durkheimen teoriaren espirtuarekin. Horretarako autore inplizituak eleberria eteten du eta alde batera uzten ditu pertsonaiak, narratzailea eta eleberria bera. Hau da, azkenean ez da tesi bat iradokitzen bakarrik, diskurtsoan pausa bat egiten da, fikzioa bertan behera uzten da, eleberriaren tesia azaltzeko eta defendatzeko inolako disimulurik gabe, autorea idatzitakoaz nahiko seguru sentituko ez balitz legez, fikzioa aski iruditu ez eta errealitatearen laguntza handiagoa beharko balu bezala, irakurlea konbentzitzea delako bere helburuetako bat.

Bibliografia

- APALATEGI, J., 1993, "Hitzaurrea" in DURKHEIM, E., *Hezkuntza eta Soziologia*, Donostia, Klasikoak S. A., 1993.
- BOURGIN, H., 1942, *Le socialisme universitaire*, Paris, Delmain et Boutelean.
- DURKHEIM, E., (1893) 1995, *La división del trabajo social*, Madrid, Akal.
- , (1895) 1977, *Las reglas del método sociológico*, Buenos Aires, La Pléyade.
- , (1897) 1998, *El suicidio*, Madrid, Akal.
- , (1912) 1992, *Las formas elementales de la vida religiosa. El sistema totémico en Australia*, Madrid, Akal.
- , (1923) 2002, *La educación moral*, Madrid, Ediciones Morata.

(9) Liburu honek soziologiaren sorrera markatzen du nolabait. Hain zuzen ere, gauza psikologikotzat hartzen zena gertakizun soziala zela demostratu baitzuen Durkheimek liburu honen bidez.

(10) Libre izan nahi dinat lehen bezala" (126).

- , (1928) 1971, *Le socialisme*, Paris, PUF.
- , (1928) 1982, *El socialismo*, Madrid, Editora Nacional.
- , (1950), 1997, *Leçons de sociologie*, Paris, Quadrigue / PUF.
- PAULUS VI, 1968, *Humanae vitae*, Madrid, S.A.R.P.E.
- SAIZARBITORIA, R., 1969, *Egunero hasten delako*, Donostia, Lur.
- TIETZEN, C., (1983) 1987, *Informe mundial sobre el aborto*, Madrid, Ministerio de Cultura.